

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

2226

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 31koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baita SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko martxoaren 31ko Erabakia, 2021eko «Global Training» laguntzen programaren oinarri arautzaileak onetsi eta argitaratzekoa.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 31ko bilkuran hartutako erabakiaren arabera, 2021eko «Global Training» laguntzen programaren oinarri arautzaileak onetsi eta argitaratu ziren, zegokien publizitatea emateko ondo-reekin.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2021eko «Global Training» laguntzen programaren oinarri arautzaileen onespenerari eta deialdiari buruzko erabakia, idatzi honetan eranskin gisa atxiki dena.

Bilbao, 2021eko martxoaren 31.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendaria,
MARÍA AINHOA ONDARZABAL IZAGUIRRE.

ERANSKINA, SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL
AGENTZIAREN NAZIOARTEKOTZEKO ZUZENDARIAREN
2021EKO MARTXOAREN 31KO EBAZPENARENA

ERABAKIA, 2021EKO MARTXOAREN 31KOA, SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN ETA ARGITARATZEN BAITIRA 2021EKO «GLOBAL TRAINING» LAGUNTZA-PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA DEIALDIA EGITEN BAITA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, esleituta ditu honako hauek sustatzeko jarduerak: industria eta enpresa-jarduera, industria-sektoreko inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, informazioaren eta ezagutzaren gizartearen garapena eta enpresa-jarduera ekintzailearen sustapena Euskal Autonomia Erkidegoan.

Horri dagokionez, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak zenbait ekintza garatu izan ditu euskal enpresak nazioartekotzeko. Jarduketa horien artean daude euskal enpresak nazioarte mailan hobeto kokatuta egoten laguntzen duten laguntza-programak.

Ondorioz, laguntza-programa hau helburu nagusi bati begira diseinatu da: euskal gazteen prestakuntza praktikoa sustatzea atzerriko enpresa eta erakundeetan.

Bestalde, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsia) 48.5 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren bidez finantzatutako finantza-erakunde guztiei agintzen die dirulaguntza-jarduera egokitze publikitatearen printzipioari, besteak beste.

Azaldutakoaren ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Global Training» 2021 laguntza-programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onestea. Programa horren edukia ebazpen honen I. eranskinean jasotzen da.

Bigarrena.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzari ahalmenak ematea ebazpen hau argitaratzeko eta indarrean jartzeko beharrezkoak diren iza-pide-egintzak egin ditzan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dio interesdunak SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Administrazio Kontseiluari; horretarako, hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

I. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING 2021 LAGUNTZA-PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Hazkunde adimentsu, jasangarri eta solidarioko 2021 Europako Estrategiaren garapenak eta euskal ekonomiaren nazioartekotzearen sustapenak gazte prestatuagoak eta hobeak behar dituzte, emakume eta gizonei independentzia ekonomiko berdina ahalbidetzen dien gizarte jasangarri bat lortzeko, Europako Batzordeak 2010eko martxoaren 5ean onartutako dokumentuan jasotzen duen bezala. Ildo horretan, aurreikusten da etorkizun hurbilean EBko lanpostu guztien ehuneko handi baterako goi-mailako kualifikazioak eskatuko direla, eta gaitasun gehienak hezkuntza ez-formalaren bidez eskuratuko direla, batez ere nazioarteko mugikortasunari, boluntariotzari, laneko ingurune errealeko ikaskuntza praktikoari eta gazteen parte-hartze aktiboari dagokienez.

Hori dela eta, ekonomia irekiaren eremuan planteatzen diren etorkizuneko erronkei irtenbideak emateko, eta euskal gazteen gaitasunak, ezagutza, prestakuntza eta mugikortasuna garatzeko eta gazte horiek lan-merkatuan sartzeko prestatuta egon daitezen, 2012an beka-programa bat abiarazi zen, zeinak sustatzen duen EAEko gazteen mugikortasuna estatuen artean, beraien profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak egiteko atzerriko herrialdeetako enpresa eta erakundeetan, aldeztu aurretik antolatutako prestakuntza praktikoko plan batekin.

Programa horrek, egokitzapenak eginda, indarrean jarraitzen du euskal gazteen eta enpresen beharrezko erantzuna emateko.

Global Training programak aukera ematen die unibertsitateko tituludunei eta lanbide-heziketako goi-mailako tituludunei atzerrian profesionalki prestatzeko, beraien espezialitate akademikoarekin bat datozen enpresetan edo erakundeetan ordaindutako praktika eginez. Proiektu honen bitartez, EAEko gazteen estatu arteko mugikortasuna sustatzen da, beraien prestakuntza osatzeko eta garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak emateko.

Azkenik, programa hau erakundeak 2021 urterako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren 2021eko «Global Training» beka-programaren kudeaketan, banaka edo lankidetzan, parte hartzen duten erakundeei dirulaguntzak funts galdura ematea arautzea. Programa horren helburua da unibertsitateko tituludunei eta lanbide-heziketako goi-mailako tituludunei prestakuntza praktikoa eskaintzea atzerriko enpresa eta erakundeetan.

Aipatutako lankidetzan honetan datza: beketarako hautagaien eta praktikak gauzatzeko enpresen hautaketa eta deialdiaren prozesuak erraztea, baita Global Training bekadunen prestakuntza-, arreta- eta jarraipen-prozesuak ere, oinarri hauen I. eranskinean ezarritako aurreikuspenen arabera.

2. artikulua.– Iragarritako beka.

«Global Training» beka gehienez 500 izango dira, eta erakunde onuradun bakoitzak gutxienez 50 eta gehienez 75 deitu beharko ditu, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzekin bat etorrira.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Programa honetara bideratutako baliabide ekonomikoak 6.200.000 euro dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan beren-beregi ezarritako aurrekontu-zuzkidu-retatik eratortzen dira (aurrekontu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren barruan daude).

Deialdi honen kargura emango diren dirulaguntzen zenbateko osoa ezingo da izan artikulua honetan ezarritako zenbatekoa baino handiagoa.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Oinarri hauetako dirulaguntzen onuradun izan daitezke «Global Training» beken deialdia egiten duten erakunde publiko eta pribatuak (I. eranskinean deskribatzen dira), baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Kasuan kasuko erregistroan erata eta izena emanda egotea, gutxienez eskaerak aurkezteko azken eguna baino bi urte lehenagotik.

b) Gutxienez bi urteko esperientzia izatea unibertsitate-prestakuntzako edo goi-mailako lanbide-heziketako proiektuak eta jarduerak egiten, eta/edo bi urteko esperientzia izatea gazteak, nazioarteko mugikortasun-programen bidez, lan-merkatuan sartzeko behar diren gaitasunetan trebatzen.

c) Erakundeen jarduera-eremua EAE osoa izatea, beraien Estatutuen arabera.

d) Nazioarte mailako sare bateko kide izatea edo antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko beste erakunde batzuekin lankidetzaz hitzarmenak edo -akordioak sinatu izana, zeinen bidez bermatzen den atzerriko enpresa edo erakundeak daudela euskal gazteak hartzeko prest, praktikak egin ditzaten.

e) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

f) Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zigortuta ez egotea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta egotea ere.

g) Dirulaguntzen itzulketa dela-eta egin beharreko ordainketak egunean egotea.

h) Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan deskribatutako egoeraren batean dauden erakundeak. Onuradun izateko aurreko zenbakietan aipatutako baldintzak eskabidea aurkeztzen den unean betetzen direla egiaztatu behar da, eta ematen den dirulaguntza likidatu arte mantendu.

5. artikulua.– Jarduketak, diruz lagun daitezkeen gastuak eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak.

1.– Oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagun daitezkeen jardueratzat hartzen dira hauek: beka-dunei dei egitea, ezagutaraztea, hautatzea, aurretiko prestakuntza ematea, eta beka kudeatu eta babestea, bekaren garapena amaitu arte.

2.– Diruz lagun daitezkeen gastuak hauek dira:

a) Bekari hasiera emateko prestakuntza espezifikoa emateko antolatzen diren ikastaroen ondoriozko gastuak; I. eranskinean ezarritakoaren arabera, ikastaro horiek 40 eta 60 ordu bitarteko

iraupena izango dute eta eranskin berean zehazten den oinarrizko programari egokituko zaizkio. Gastu horiek finantzatzeko laguntzak, bekadun bakoitzeko, ezin dira 500 eurotik gorakoak izan.

b) Beka bakoitzerako, hilean 1.570 euro gehienez emango dira gastuak ordaintzeko, gehienez ere 6 hilabetez. Partida horren kargura:

– Bekadunek 1.500 euro gordin jasoko dute, eta kopuru horri Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagokion zenbatekoa kendu beharko zaio, bekadunak bere gain hartuta.

– Gainerako zenbatekoa erabiliko da erakunde eskatzaileek enpresak ordaindu beharreko Gizarte Segurantzaren kotizazioak ordaintzeko.

c) I. eranskinean ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunak izenpetu beharko dituen aseguru-polizetatik eratorritako gastuak; aseguru-poliza horien bidez, bekadun bakoitzak gai-xotasun- eta erantzukizun zibileko eta istripu-arriskuak estaltzeko aseguru bat izan dezan, eta bidaiia-laguntzako azken horren osagarri izan dadin. Gastu horiek finantzatzeko laguntzak, bekadun bakoitzeko, ezin dira 400 eurotik gorakoak izan.

d) «Global Training» beka-programa abiarazteko, kudeatzeko, administratzeko eta komunikazio eta publizitaterako erakunde onuradunen gastuak. Gastu horiek finantzatzeko laguntzak ezin daitezke 1.000 eurotik gorakoak izan bekadun bakoitzeko.

Herrialderen bateko bisatuaren kostua oso handia bada eta bekadunen zuzkidura ekonomikoa ez bada nahikoa hura ordaintzeko, erakunde onuradunek partida honi egotzi diote gastu hori.

Bekadunak praktikak egiteko herrialdera joan aurretik bekari uko egiten badio, edo herrialde horretako osasun-egoera dela-eta edo mugak ixteagatik ez badauka heldzerik, beka baliogabetuko da, eta beraz, erakunde onuradunek beka horietako bakoitzaren kudeaketari dagokion zenbatekoaren % 50 jasotzeko eskubidea baino ez dute izango.

e) Horrez gain, COVID-19aren pandemiak munduan eragin duen egoera kontuan hartuta, eta mundu mailako era horretako krisialdiek atzerrian normaltasunez bidaiatzeko eta bizitzeko sorrazten dituzten zailtasunak ikusita, 3. artikuluan deskribatutako aurrekontuan, gorabeheretarako 1.000 euroko partida bat dago bekadun bakoitzeko.

Partida hori salbuespen kasu hauetan bakarrik erabiliko da:

– Bekadunei eragiten dieten ezinbesteko arrazoiak direla-eta beharrezkoa bada ustekabeko gastuak egitea helmuga-herrialdean aparteko laguntza medikua eskaintzeko, bidaiak egiteko edo bestelako gastu gehigarriak egiteko, edo, beharrezkoa balitz, bekadunak dauden herrialde-tik jatorrizko herrialdera ekartzeko. Hori guztia, deialdi honen kontura dagoen atzerriko 6 hileko egonaldian.

– Bidaia, bisatua edo alokairuak direla-eta gastuak egin badira, osasun-egoeragatik eta/edo mugak ixteagatik bekadunak ez badauka helmuga-herrialdera joaterik eta, beraz, bekaduna ezeztatzen bada.

Basque Trade & Investment-ek eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak aldeztu aurretik baimena eman beharko dute gastuak partida horri egozteko, eta baimendutako gastu bakoitza dokumentu bidez egiaztatu beharko da. Beharrezkoa ez bada partida erabiltzea, erakunde onuradunek ez dute inolako diru-kopururik jasoko.

6. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuk jasotzea.

1.– Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde batzuek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, batzuekin.

2.– Aurrekoa gorabehera, oinarri hauen babespean ematen den dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik zein administrazio edo erakunde pribatu edo publiko batzuek emandako beste dirulaguntza eta laguntzarekin batera, edo diruz lagundutako jarduketarako beste sarrera edo baliabide batzuekin batera, inola ere ezin da izan dirulaguntzaren xede den programaren kostua baino handiagoa. Kasu horretan, gaindikinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio oinarri hauek direla bide emandako dirulaguntzari.

7. artikulua.– Eskakerak aurkezteko epea, eskaerak eta dokumentazioa.

1.– Dirulaguntzaren eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean hasi eta 2021eko maiatzaren 21eko 24:00etan amaituko da, eta egun horretako 15:00ak arte laguntza teknikoa emango da.

2.– Eskakerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta oinarri hauetatik eratorzen diren gainerako kudeaketak baliabide elektronikoen bidez egingo dira. Eskabidea eskuratzeko eta betetzeko, helbide elektronikoa honetan sartu beharko da: www.spri.eus/GlobalTraining

3.– Eskabideekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren NAN.
- b) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskalaren txartela.
- c) Erakundearen eraketari buruzko eskriturak eta/edo eskatzailearen ordezkariarako ahalordea.
- d) Kontuaren titulartasuna ziurtatzen duen ziurtagiria.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordaindu dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, erakunde eskatzaileak aipatutako agiriak eskatzeko baimena ukatzen badu; izan ere, laguntzaren eskabideak berekin dakar SPRIri berariazko baimena ematea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eskatzeko.

f) Oinarri hauetako 4.b) artikuluan eskatzen den esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, garatutako proiektuak, deialdia edo hitzarmenak identifikatuta.

g) Nazioarte mailako sare bateko kide izatea edo antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko beste erakunde batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo -akordioak sinatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa, oinarri hauetako 4.d) artikulua eskatutakoa betetzeko.

h) «Global Training» beka-programa garatzeko proiektua, hauek barne hartuta:

I) Deitu nahi diren Global Training beken kopurua, oinarri hauetako eranskinetan aurreikusitako baldintzekin bat etorrira.

II) Hautatutako gazteei zuzendutako prestakuntza-plana, praktikak egingo dituzten enpresa edo organismoan hasi aurretik. Prestakuntza-planak ikastaro batzuk izango ditu, 40 eta 60 ordu bitartekoak, oinarri hauetako II. eranskinean zehaztutako oinarrizko programari egokitutakoak.

III) Egingo diren ekintzen kronograma, deialdian ezarritakoaren arabera proiektuaren garapena bermatzen duena.

IV) Aurrekontu osoa, aurreikusitako gastu eta diru-sarrerak eta proiektuaren barruko ekintzen garapena jasotzen dituen.

V) Erakunde eskatzaileak proiektua garatzeko dituen giza baliabideak, baliabide materialak eta/edo esperientzia.

VI) Proiektuaren garapenean inplikaturako erakunde juridikoko pertsonen curriculum vitaeak.

i) Erakunde desberdinek lankidetzaren modalitatean eskaera bateratua aurkezten dutenean, lankidetzarako barne-akordio bat aurkeztu beharko da, erakunde laguntzaile guztiek sinatuta. Akordio horrek zehatz-mehatz azaldu beharko du nola laguntzen duen bikaintasuna lortzen proiektuaren garapeneraren fase guztietan: publizitatea eta deialdia, hautaketa, prestakuntza, praktika onen bilaketa eta prozesu osoaren monitorizazioa.

j) Erakundearen erantzukizunpeko adierazpena, hau ziurtatzen duena: erakunde hori ez dutela administrazioan edo auzibidean zigortu sexua dela-eta inor baztertzeko, eta ez dutela zigortu dirulaguntzetarako deialdietan aurkezteko debekuekin, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera.

k) Beste erakunde batzuei dirulaguntzarik eskatu bazaie, laguntza horien eskaeraren kopia. Dirulaguntza horiek dagoeneko eman badira, haien ebazpenaren kopia.

4.– Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak dokumentazio eta/edo informazio osagarria eska diezaieke erakunde eskatzaileei, laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektua behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkoa dena.

5.– Ez da beharrezkoa izango aurkeztea dagoeneko Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak dituzten dokumentuak. Erakunde eskatzaileak aurkeztu badu dokumentazio hori, eskaeran agerrarazi beharko da noiz aurkeztu den eta zein organo edo bulegotan.

6.– Laguntzaren eskaera, eskatutako dokumentazioarekin batera, hautatzen den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da. Halaber, laguntzaren eskaeratik eratortzen diren jarduketetan eta prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza ofiziala erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legean ezarritako moduan.

8. artikulua.– Onarpena eta zuzenketa.

Baldin eta Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak ikusten badute aurkeztutako dokumentazioan akats, oker edo zehaztasun ezaren bat dagoela, erakunde eskatzaileari jakinaraziko diote eta hamar (10) eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko; gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, ulertuko dela bere eskaeran atzera egin duela. Epe horretan ez bada dokumentazioa zuzendu, eskaera atzera egindakotzat jotzeko ebazpena emango da.

9. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira; horretarako, aurkeztutako eskabideak erkatzen dira haien artean hurrenkera bat ezartzeko, 10. artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuta: dirulaguntzak emango zaizkie gutxienezko puntuazioa lortu dutenen artean baloraziorik altuena izan dutenei, lehentasun-hurrenkerari jarraituz, deialdiaren finantzaketarako zuzkidura ekonomikoa amaitu arte.

10. artikulua.– Balorazio-irizpideak eta haztapen-faktoreak.

Balorazio-irizpideak haztatu egingo dira oinarri hauen IV. eranskinean zehaztutakoarekin bat etorrita. Onuradun izateko gutxieneko puntuazioa 60 puntu da.

Irizpideen deskribapena:

1.– Praktikei buruzko informazio argia (0 eta 15 puntu bitartean): enpresaren edo erakundearen jarduerari, sektoreari, jatorriari eta tamainari buruzko informazioa, eskatutako profila, praktikak egingo diren leku geografikoari buruzko informazioa eta bekadunak egin beharreko zereginen deskribapena.

2.– RIS3 enpresa eta erakundeetako praktiken ehunekoa (10 puntu): aurkeztutako praktika guztien % 25, gutxienez, RIS 3 sektore bateko enpresetan eta erakundeetan egiten badira puntuazioa emango da, programaren lehentasunak Eusko Jaurlaritzaren Enpresak Nazioartekotzeko Planarekin bateratuta.

3.– Atzerriko enpresa eta erakundeen ehunekoa (15 puntu): baimenduta dago erakundeek lan-kidetza-hitzarmenak sinatzea euskal enpresekin eta estatuko erakundeekin, baina kontuan hartuta programaren helburua dela bekadunek beste enpresa-kultura batzuk ezagutzea eta haietatik ikastea, aurkeztutako praktika guztien % 80, gutxienez, atzerriko enpresa eta erakundeetan egitea baloratuko da.

Euskal enpresa eta estatuko erakundeetan praktiken % 20 gaindituz gero, atal honetako 15 puntuak ez zaizkie emango, eta gainera, % 20 gainditu eta unibertsitateko tituludunak behar dituztenak ez dira kontuan hartuko artikuluko honetako 5. atalaren balorazioa egitean.

Praktikak egiten diren euskal enpresa eta estatuko erakundeetan lanbide-heziketako tituludunak behar badituzte, praktika horiek ez dira kontuan hartuko atzerriko enpresetako praktiken ehunekoa kalkulatzeko, kolektibo horrek unibertsitateko tituludunek baino aukera gutxiago baitu atzerrian praktikak egiteko.

Irizpide horren ebaluazioa egiteko, estatuko edo EAeko enpresen filialak, sukurtsalak eta ordezkari-tza-bulegoak ez dira atzerriko enpresatzat hartuko, estatuko erakundeek atzerrian dituzten ordezkari-tzak bezalaxe.

4.– Bekaz gozatzeko aldia luzatzea, praktika egiten den erakunde onuradunaren, enpresaren edo erakundearen kontura (0 eta 30 puntu bitartean): beka gehienez ere 6 hilabetez luzatu daiteke, eta, horretarako, enpresak edo erakundeak sinatu beharko du oinarri hauetako V. eranskinean eskuragarri dagoen aurrekordioaren eredia.

Azken deialdietako esperientziak erakutsi du diziplina akademiko batzuetarako ezin dela beka gozatzeko aldia luzatu; hori dela eta, diziplina guztiek programa honetan eskaintza egoki eta interresgarriekin lekua izango dutela bermatzeko, erabaki da aurkeztutako eskaintzen % 10 ez egotea balorazio-irizpide horri lotuta. Salbuespen horretako diziplinak hauek dira: Ingurumen Zientziak, Biologia, Artearen Historia, Arte Ederrak, Geografia eta Historia, Kultur Kudeaketa, Filologia, Itzulpena eta Interpretazioa eta Psikologia.

1., 2., 3. eta 4. irizpideak hobeto ebaluatzeko, VI. eranskina (eskainitako praktiken laburpen-eta) eta VII. eranskina (eskainitako praktikaren xehetasuna) bete eta aurkeztuko dira.

5.– Eskainitako beken kopurua (gehienez, 10 puntu): puntuak emango dira beka-kopurua 60 edo gehiago bada.

6.– Erakundeen arteko lankidetzaren eraginkortasuna eta errealitatea (10 puntu): puntuak lortuko dituzte erakunde batzuek proiektuaren lankidetzaren aurkezten badute. Lankidetzaren helburua izan behar da bikaintasuna lortzea proiektuaren garapeneraren fase guztietan: publizitatea eta deialdia, hautaketa, prestakuntza, praktika onen bilaketa eta prozesu osoaren monitorizazioa.

7.– Hautagaien ratorik handiena (5 puntu): programaren aurreko deialdiaren aldean, hautagaien ratio handiena duen erakundeak puntuak lortuko ditu.

8.– Emandako beka guztiak (5 puntu): puntuak lortuko dira aurreko deialdian emandako beka guztiak adjudikatu badira. Hautagaien destinoko herrialdera joan aurretik bekari uko egiten badiote, beka horiek adjudikatutzat joko dira eta beraz, erakunde eskatzaileak ez du zigorrik jasoko.

11. artikulua.– Eskabideen analisia eta ebaluazioa.

1.– Balorazio Batzordeari dagokio aurkeztu eta onartutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Balorazio Batzordea honela egongo da osatuta:

– Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia) Enpresak Nazioartekotzeko zuzendaria batzordeko presidentea izango da: Iñaki Ezkurra.

– Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia) programen teknikaria batzordeko kidea izango da: Enbor Barruetabeña.

– SPRIren Nazioartekotze programen teknikaria batzordeko kidea izango da: Inmaculada López.

– SPRIren Nazioartekotze programak izapidetzearen arduraduna batzordeko idazkaria izango da: Iker Arruabarrena.

Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren erakunde laguntzailea izango da, eta funtzio hauek izango ditu:

a) Bidalitako dokumentazio teknikoa aztertzea.

b) Egindako gastu hautagarriak behar bezala gauzatzen direla ikuskatzea.

c) Ikuskapenei buruzko txostenak egitea.

d) Gerta litezkeen gorabeherak SPRIri jakinaraztea.

e) Oinarri hauetan jasotako funtzio guztiak.

2.– Lehiatzeko eskatzen diren baldintzak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio-irizpideak oinarri hartuta, Balorazio Batzordeak, proiektuak aztertu eta kalifikatu ondoren, aurkeztutako eta onartutako eskabide guztien zerrenda egingo du, beharrezko hurrenkeran, lortutako puntuazioaren arabera; halaber, eskabide horietako bakoitzari proposatutako praktika-kopurua adieraziko du, deialdi honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

Azken bien arteko berdinketa badago, 10. artikuluan 4. irizpidean (bekaz gozatzeko aldiak luzatzea) puntu gehien lortu duen erakundea nagusituko da. Hala ere, berdinketa apurtzen ez bada, 10. artikuluan 1. irizpidean (praktikei buruzko informazio argia) puntu gehien lortu duen erakundea nagusituko da.

3.– Batzordeak hartutako erabakian oinarrituta, erakunde onuradunei beka emateko proposamen bat idatziko da, SPRIren Nazioartekotze Zuzendaritzari zuzenduta.

12. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate prozedura.

1.– Deialdi honetan aurkezten diren eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren SPRIren Nazioartekotze Zuzendaritzari dago-kio eskabideak ebaztea.

2.– Laguntzak, ebazpen bidez, eman edo ukatuko dira; lehenengo kasuan, laguntza emateko ebazpenean, laguntza bakoitzerako adieraziko da erakunde onuradunaren sozietatearen izena, onartutako «Global Training» beken proiektuaren zenbatekoa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta finantzatzen diren beken kopurua. Bigarren kasuan, laguntza ukatzeko ebazpenean, erakunde eskatzaileen sozietatearen izena eta laguntza ukatzeko arrazoiak jasoko dira.

3.– Aurreko paragrafoko ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta erakunde interesdunak, nahi badu, berraztertze-errekurtoa jarri ahalko dio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze Zuzendaritzari, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera hilabeteko (1) epean.

4.– Hartzen den ebazpena interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio, eta gainera, erakunde onuradunen zerrenda programaren webgunean (www.spri.eus/Global Training) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, haietako bakoitzak kudeatu behar duen beka-kopurua eta beka bakoitzari adjudikatutako zenbatekoa adierazita.

5.– Prozedura ebatzi eta interesdunei ebazpena jakinarazteko epea sei hilabete izango da, laguntzen deialdia argitaratu eta biharamunetik zenbatuta; Epea igaro bada eta ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunen eskabideak ezetsizat joko dira.

6.– Hala badagokio, onuradunei dirulaguntza hauek eman eta ordaintzeko, nahitaezkoa izango da amaituta egotea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek eta sektore publikoko gainerako erakundeek emandako izaera bereko laguntzak edo dirulaguntzak direla-eta hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak. Prozedura amaitzen bada laguntza publikoak jasotzeko debekua ezartzeagatik edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzeagatik, eta laguntza ez badu borondatezko epean itzultzen, emandako dirulaguntza bertan behera geratuko da, onuraduna izateko debeku kasu batean baitago.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen babespean ematen diren dirulaguntzen erakunde onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan ezarritako betebeharrak bete behar dituzte, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan ezarritakoak ere (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen). Erakunde onuradunek, bekadunen aurrean, beren gain hartzen dituzte betebeharroriek, oinarri hauetako I. eranskinaren VIII. atalean aurreikusitakoarekin bat etorruta, zehazki, betebeharrak hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo honetan, dirulaguntza eman zaiola adierazten duen ebazpena jakinarazi eta ondorengo hamabost egunetan onuradunak ez badio beren-beregi eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako erabiltzea eta gastuak finantzatzeko erabiltzea.

c) Berehala jakinaraztea SPRIri eta Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotze Euskal Agentzia) beste edozein administrazio edo erakunderen (publikoa nahiz pribatua) diru-sarrera edo baliabide eskatu edo jaso duela hemen arautzen diren laguntzen helburu berdinerako edo antzekorako.

d) «Global Training» beken deialdia egitea oinarri hauetako I. eranskinean adierazitako ezaugarriekin, eta ematen den beka bakoitza kudeatzea, hautaketatik praktikak amaitu arte.

«Global Training» beka ezagutarazteko elementu guztietan (web orriak, prentsako iragarkiak...) eta deialdiaren, hautaketaren, emakidaren eta segimenduaren agiri guztietan, «Global Training» beka programaren identifikazioko logoa, Basque Trade & Investment-en logoa (Nazioartekotze Euskal Agentzia), SPRIren (Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia) logoa eta Eusko Jaurlaritzarena agertu beharko dira.

Gainera, aipatutako elementu horietako testuan beren-beregi eta behar beste aldiz aipatu behar da beka Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimena direla.

e) Solaskide bakarra izendatzea Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzian egin beharreko kudeaketa guztietarako. Erakunde batzuek Global Training programan lankidetzaren modalitatean parte hartzen badute, solaskide bakarrak haien gaineko erantzukizuna izango du.

f) SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotze Euskal Agentzia) denbora nahikoa lehenago jakinaraztea hautaketa-prozesuaren elkarrizketen egutegia, ordezkariek elkarrizketetara bertaratu ahal izateko.

g) Aldez aurretik antolatutako prestakuntza-ikastaroak ematen direla bermatzea.

h) Praktikak egingo diren atzerriko enpresa edo erakundeekin lankidetzaren akordio espezifikoak sinatzea, zeinetan praktikak egiteko beharrezkoak diren baldintza materialak eta teknikoak ezarriko diren.

i) Beka bakoitzari lotutako aseguruak kudeatzea.

j) Bekadunei Gizarte Segurantzaren alta ematea.

k) Ematen den «Global Training» beka bakoitzaren jarraipena egitea, bekadunari ezarri zaizkion baldintzak programan dagoen bitartean betetzen direla egiaztatzeko. Horretarako, bekadun bakoitzari eta praktikak egingo diren enpresa edo erakundeei beharrezko txostenak eskatuko zaizkio.

l) Bekadun taldearen egoeraren berri ematea hileroko SPRIren filiala den Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotze Euskal Agentzia), hala nola helmuga-herrialderako irteerak, uko egitea, Euskadira itzultzea, azken orduko aldaketak...

m) Emandako «Global Training» beken kopurua eta haien ezaugarriak dokumentu bidez justifikatzea, eta horrekin batera, beken garapeneraren xehetasunak ematen dituen laburpen-txosten bat.

n) Laguntzei emandako helburuaren fiskalizazio-funtzioak betetzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dioten informazio guztiak ematea.

o) Laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzultzea.

p) Bekadunei beka bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaintzea. Ordainketa hiru zatitan egingo da: % 50 praktikak hasi aurretik ordainduko da, beka eman ondoren; % 40 praktiken iraupeneraren

erdia betetzen den hilean, eta gainerako % 10 praktika amaitzean ordainduko da, eskatzen zaizkion dokumentu guztiak aurkezten direnean.

q) Hainbat erakundek lankidetzan eskaera bateratua aurkezten badute, proiektuaren kudeaketa bakarra eskaini beharko dute, eta ezin izango da bekarik banatu erakundeen laguntzaileen artean, ezta beken kudeaketa bereizirik egin ere.

14. artikulua.– Laguntzak ordaintzea eta erakunde onuradunek laguntza justifikatzea.

1.– 13. artikuluan aipatutako epealdia igarota egingo da honako oinarri hauen kargura «Global Training» beka-programaren baitan emandako laguntzen ordainketa, betiere berariazko uko egiterik egon ez bada, honela:

a) Lehen ordainketa: emandako laguntza onartu denean jasoko da, eta prestakuntzaren, aseguru-polizen, martxan jartzearen, kudeaketaren, administrazioaren, komunikazioaren eta publizitatearen gastuetara bideratutako zenbatekoaren % 50 izango da.

b) Bigarren ordainketa: beka bakoitzaren zuzkidurari dagokion zenbatekoaren % 50 ordainduko da, bekadunen zerrenda argitaratu eta gero. Zerrenda horretan gutxienez izen-abizenak, NANA, jaiotza-data, generoa, telefonoa, e-maila, ikasketak, dakizkien hizkuntzak eta esleitutako enpresa, herrialdea eta hiria adieraziko dira. Horrez gain, SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) bekadunei eta esleitutako enpresei buruz behar duen informazio osagarri guztia eska dezake.

Bekadunen zerrenda aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31n bukatuko da; data horretatik aurrera ez da bekarik emango.

c) Hirugarren eta azken ordainketa bat egingo da bekak bukatuta eta justifikatuta daudenean, eta gainerako kontzeptuengatik eta, egotekotan, kontingentziengatik ordaintzeke dagoen % 50 izango da. «Global Training» bekak kudeatzeetik eratorritako gastuei aurre egiteko azken ordainketa hori aurretiaz jaso behar dutela egiaztatzen duten erakunde onuradunek eskaera egin beharko diote SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotze Euskal Agentzia), eta 180.303,63 euro baino aurrerakin handiagoen kasuan bankuko abal bat aurkeztu beharko dute. Aurrerakinak 2022ko urtarrilean ordainduko dira.

2.– Justifikazioak proiektua bukatzen denetik hilabeteko epean aurkeztu beharko zaizkio SPRI-Enpresen Garapenaren Euskal Agentziari, betiere deialdiaren hurrengo ekitaldiko azaroaren 30a baino lehen.

3.– Justifikazio-dokumentu horien artean, honako hauek egongo dira, gutxienez:

- Bekadun bakoitzak egindako zeregin eta ekintzen txosten xehakaturia.
- Bekaren garapenari buruzko txosten orokorra, enpresen eta bekadunen zerrendarekin.
- Erakunde onuradunak bekadunei egindako banku-transferentzien egiaztagiria.
- Gizarte Segurantzari egindako ordainketen ziurtagiria (langileen izenen zerrenda, alta eta baje agiriak, etab.)
- Kontratututako aseguruaren ziurtagiriak.
- Prestakuntza-ikastaroen antolaketak eragindako kostuen ziurtagiria.
- Kudeaketa-, administrazio-, komunikazio- eta publizitate-gastuen ziurtagiriak.

Faktura guztiak BEZik gabe egingo dira, erakunde onuradunak bakarrik BEZetik salbuetsita dauden jarduerak egin ezean; kasu horretan, dagokion Ogasunaren ziurtagiri batekin justifikatu beharko du.

Ez da autofakturazioa onartzen, ezta lankidetzan aritutako erakundeen arteko fakturazioa ere.

Prestakuntza, kudeaketa, administrazioa, komunikazioa eta publizitatea erakunde onuraduneko langileek egin dituztela adieraziz gero, pertsona horien izen-abizenak, lan zehatzak, lan egindako orduak eta horien kostua zehaztu beharko dira.

Prestakuntzarako erakunde onuradunaren aretoak erabiltzeagatik izandako gastuak jasoz gero, ordu-kopurua eta kostua justifikatu beharko dira, erakundearen aretoak erreserbatzeko dauden tarifa ofizialak aurkeztuz.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Erakunde onuradunak ezarritako betekizunak ez betetzeak, aurkeztutako datuak faltsuak izateak eta jasotako zenbatekoa emandako xederako ez den beste xede baterako erabiltzeak berekin dakar dirulaguntza galtzea eta bi hilabeteko epean jasotako zenbatekoak gehi dagozkion legezko interesak ordaintzea, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak dagokion ez-betetze espedientea kudeatu ostean. Horrek ez dio kalterik egingo dagozkion beste jarduketa batzuei, eta aipatutako guztia Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuarekin bat eginez egingo da.

2.– Halaber, ez-betetzetzat joko da Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikuluan jasotako edozein baldintza izanez gero.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Araudi aplikagarria.

Programa honi hurrengo araudia aplikatzen zaio:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta horrek garatutako Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), dirulaguntzen esparruan oinarritzko araudia izanda.

2.– 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauek onartzen dituenak.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituenak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean DBEO) eta izaera pertsonaleko datuak babestearen arloko gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoari jarraikiz, jakinarazten da emandako datuak eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzeko erabiliko direla. Bestalde, datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren xedea betetzeko interes legitimoa da, bere eraketa-legearekin bat etorritik.

Aipatutako informazio hori enpresa laguntzaileei helaraz dakieke, baita arlo horretako Administrazio Publiko eskudunari eta SPRI Taldeko enpresei ere (ikus: <https://www.spri.eus/nortzuk-gara/spri-taldeko-sozietateak>).

Interesdun guztiak izango dute aukera datuen babeserako araudiak ematen dizkien eskubideak SPRIren aurrean erabiltzeko, eta, horretarako, idatziz zuzenduko zaizkio SPRIri, honako helbide honetara: lopd@spri.eus

SPRIin Datu Pertsonalen Babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsultatzeko, <https://www.spri.eus/pribatutasun-politika/> webgunean dagoen Pribatutasun Politikara jo daiteke.

Datuen babesa eskatu behar izanez gero, kontrol-agintea Datuen Babeserako Espainiako Agentzia da.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak honako oinarriekiko hartzen dituen erabakiek izaera administratiboa dute, eta, beraz, eskumeneko jurisdikzioa administrazioarekiko auziena izango da.

I. ERANSKINA

«GLOBAL TRAINING» BEKA-PROGRAMAREN OINARRIAK

I.– Helburua.

«Global Training» beka-programa Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen nazioarteko mugikortasuna indartzera bideratuta dago, beren profil akademiko eta profesionalarekin bat datozen ekintza eta proiektuak egin ditzaten atzerrian, alde zuzenetik planifikatutako prestakuntza-plan bati jarraituz, betiere. Horretarako, Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza ekonomikoak eratu ditu programa hori garatzeko gaitasuna duten erakundeei emateko, unibertsitateko titulazioa eta goimailako lanbide-heziketako titulazioa duten eta erakunde horiek hautatu eta prestatu dituzten gazteek praktikak egin ditzaten atzerriko enpresa eta erakundeetan programa honen araudiaren esparruan. Aipatutako laguntza horien araubidea eranskin honekin batera datozen oinarrietan aurki daiteke.

II.– «Global Training» beken edukia.

1.– Programako erakunde onuradunek emandako bekek honako hauek hartuko dituzte barne:

a) Prestakuntza-ikastaro bat, derrigorrezkoa bekadun guztientzat, eta 40 eta 60 ordu bitarteko. Ikastaroaren gutxienezko edukia deialdi honetako II. eranskinean dago jasota. Beka ematen duen erakundeak, hau da, laguntza-programaren onuradunak, emango du ikastaroa, praktikak hasi aurretik.

b) Atzerrian praktikak egiteko egonaldi bat, enpresa edo erakunde kolaboratzaile batean, gutxienez 6 hilabete eta gehienez 12 hilabete iraungo duena. Beka jaso dela jakinarazten denetik bi hilabeteko epean hasiko da.

2.– Dagokion erakundeak beka eman izanaren egiaztagiria egiten duenean jasoko da bekadun izaera, eta momentu horretan emango zaio hasiera bekaldiari.

III.– «Global Training» beken onurak eta mugak.

1.– Guztira, 500 beka eskainiko dira.

2.– Programa honen barruko bekadunek honako onura hauek izango dituzte:

a) 40 eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-ikastaroa, dohainik, praktikak hasi aurretik. Beka eman duen erakundeak antolatu eta ordainduko du. Derrigorrezkoa izango da bekadunek ikastaro hori egitea; egingo ez balitz, bekadun izaera galduko litzateke.

b) 1.500 euroko zuzkidura hilabetean, helmuga-herrialdera joateagatik gastuak, mantenu- eta- ostatu-gastuak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioa ordaintzeko, baita, beharrezkoa balitz, bisak lortzeagatik edo txertoak jartzeagatik eragindako gastuak ordaintzeko ere.

c) Erantzukizun zibilari eta istripuei dagozkien arriskuak eta azken horren bidaiari- asistentzia osagarria estaltzea. Erantzukizun zibileko polizak aseguratutako bere bekaldiaren garapenean hirugarrenei eragiten dizkien kalteen ondorio ekonomikoak estali beharko ditu.

Istripu-polizak heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, osoa eta partziala (baremoaren arabera) estaliko ditu, eta bidaia-asistentzia polizak, aldiz, aseguruak helmuga-herrialdean izan ditzakeen istripu eta/edo gaixotasunak.

Aipatutako poliza horien eremu geografikoa mundu osokoa izan beharko da.

3.– Beka emateak eta hartaz gozatzeak ez du inola ere kontratu edo estatutu bidezko harremanik ezarriko bekadunaren eta beka eman duen erakundearen, Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia), SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo praktikak egiten diren enpresa edo erakundeen artean.

IV.– «Global Training» bekak jasotzeko baldintzak.

1.– «Global Training» bekak eskuratzeko interesa dutenek honako baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:

a) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unea baino gutxienez 12 hilabete lehenagotik edo elkarren segidako 5 urtez aurreko 10 urteetan.

b) Unibertsitateko graduko titulazioa edo goi-mailako Lanbide Heziketako titulazioa edukitzea. Unibertsitate pribatuetan eta/edo atzerrian lortutako tituluak onartuko dira, betiere, eskaeraren epea bukatzean dagokion agintaritzak homologatu baditu.

c) Praktikak egingo diren enpresak edo erakundeak eskatzen duen profileria egokitzea.

d) 2021eko urtarrilaren 1ean, 31 urte bete gabe izatea.

e) Ingeles-maila ona izatea. B2 maila hartuko da erreferentziatutako unibertsitate-irakaskuntza ofizialetako graduko titulazioen kasuan, eta, aldiz, B1 maila goi-mailako Lanbide Heziketako titulazioen kasuan. Ingeles-maila egiaztatzeke, ezagutza-maila neurtuko duen ahozko eta idatzizko proba bat egingo da, hautagaiak bere ingeles-maila bermatzen duen egiaztatgiri homologaturik ez baldin badu.

f) Beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; edo beka onartzeko orduan ez izatea eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik.

g) Unibertsitate-tituludunentzako antzeko prestakuntza helburua duen beste edozein laguntza jaso ez izana, baldin eta, laguntza horren bidez, nazioarteko erakunde edo enpresetan 6 hilabetez edo epe luzeagoz praktikak egin badira atzerrian. Bereziki, beka hauetaz baliatzea ez da bateragarria honako beka hauen onuradun izatearekin: Global Training bekak, ICEX bekak, beste autonomia-erkidego batzuenak, merkataritzaganberenak, EBko Merkataritza Sustatzeko Erakundeak edo antzeko beste erakunde batzuenak.

h) Salbuespen gisa, 2020an COVID 19aren pandemiagatik bekak bertan behera geratu eta gero, edizio honetan berriz aurkeztu ahal izango dira 2019an Global Training beka bat lortutako onuradunak, hurrengo kasu hauetako batean baldin badaude:

– Beka bertan behera geratu zen helmugako herrialdera irten urretik edo atzerrian 3 hilabete (egonaldiaren % 50, programaren aurrekontuaren kargura) egon baino lehen.

– Atzerrian 3 hilabete baino gehiago eta 4,5 hilabete baino gutxiago (egonaldiaren % 75, programaren aurrekontuaren kargura) egon eta gero, beka ematen duen erakundeak, Basque Trade & Investment-ekin (Nazioartekotze Euskal Agentzia) ados jarrita, hautagaiak bekari probetxua ateratzeko arrazoi objektiboak daudela erabakitzea, deialdi honetara berriz aurkezteko salbuespena justifikatuz.

Edonola ere, deialdi honetara berriz aurkezteko aukerak ez dio hautagaiari, inolaz ere, plaza ziurtatuko. Horrela, hautaketa-prozesuan berriz parte hartu eta eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu.

i) Ezin izango dira berriz aurkeztu, aurreko atalean deskribatutako baldintzak betetzen badituzte ere, 2019ko Global Training programaren beken entitate arduradunen bati oraindik dirua itzuli behar dioten hautagaiak.

j) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

k) Oinarri hauen bitartez araututako bekatarako aukerarik ez dute izango eskabidea egiten duten pertsona hauek: bekak edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat dutenek, edo horretarako legezko debekurik dutenek, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.

l) Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan zehazten diren inguruabarretako batean dauden pertsonak.

2.– Honako hau egin beharko da beka eman duen erakundeari aurreko atalean jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko:

a) Jaiotegunaren egiaztagiria (NAN, jaiotza-agiria edo jaiotzaren dokumentu fedemailea).

b) Curriculum vitae.

c) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela ziurtatzen duen agiria, artikulua honetan zehaztutakoarekin bat etorriz.

d) Bekadunak dagokion titulazioa –eta, hala badagokio, homologazioa– duela ziurtatzen duten egiaztagiria, eskumena duen instantziak emandakoa.

e) Eskatutako hizkuntzaren egiaztagiria, gehienez ere 4 urteko antzintasuna izango duena. Halakorik izan ezean, hizkuntza-maila egiaztatzeko egingo den ahozko eta idatzizko probaren emaitza aurkeztu beharko da.

f) Bekadunaren zeregin eta betebeharrak behar bezala burutzeko eragotz lezakeen gaixotasunik ez duela zehaztuko duen mediku-egiaztagiria.

g) Erantzukizunpeko adierazpena:

– Antzeko beka baten onuraduna ez izatea, artikulua honetan xedatutakoarekin bat.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

– Zerga-betebeharrak egunean izatea.

3.– Hautagaia praktikak egingo diren enpresak edo erakundeak eskatutako profileragokitzen dela egiaztatzeari dagokionez, Hautaketa Epaimahaiarekin elkarrizketa bat egin beharko da egokitzapen-maila balioesteko.

V.– «Global Training» beketarako hautagaiak aukeratzeko prozesua.

1.- Bekaren eskaera egiten denean, oinarri hauetan xedatutakoa onartzen da.

2.– Beketarako hautagai bakoitzak eskari bakarra aurkeztu ahal izango du programako entitate onuradunen batean. Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) SPRIren sozietate filialak erakunde kolaboratzaile guztietan aurkeztutako eskaerak egiaztatuko ditu. Hautagairen batek eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

3.– Bekak ematen dituzten erakundeek egingo dute hautaketa, jarraian deskribatutako prozesua oinarri hartuta:

a) Dagokion beka-programaren deialdi publikoa. Bertan, honako hauek jasoko dira: proposatutako beka-kopurua eta beka bakoitzaren profila eta helmuga. Gainera, gutxienez hilabete bateko epea aurreikusiko du, lehen aldiz iragartzen denetik zenbatzen hasita, eskaerak formalizatzeko eta aurreko IV. atalean aipatutako egiaztagiria aurkezteko.

b) Eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dela egiaztatzea, eta, hala ez bada, interesatuei dokumentazio hori hamar eguneko gutxieneko epean aurkezteko eskatzea.

c) Curriculum Vitaea aztertuko da eta titulazioa, prestakuntza osagarria eta esperientzia edo egindako praktikak baloratuko dira. Azken horretarako, berdintasun, meritu- eta gaitasun-irizpide orokorrak erabiliko dira.

d) Ingeles-proba edo dagokion B2 edo B1 mailako titulua izatea. Titulu horrek ezingo du 4 urtetik gorako antzinakotasuna izan.

e) Hautaketa Epaimahaiarekin elkarrizketa izatea, hark balora dezan hautagaiak praktikak egingo diren kanpoko enpresak edo organismoak eskatutako profilari zein neurritan egokitzen zaizkion.

f) Hautaketa Epaimahai bakoitzak beka-deialdia egin duen erakundeko kide bi izango ditu gutxienez. Lankidetzaprograman parte hartzen duten erakundeei dagokienez, elkarrizketa bakoitzean gutxienez lankidetzan ari diren bi erakundetako ordezkariak egon beharko dira. Horrez gain, SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia) ordezkari bat egon ahal izango da.

4.– Hautaketa-prozesua amaitutakoan, deialdia egin duen erakundeak dagokion beken esleipen-agiria emango du. Bertan honako hauek jasoko dira: helmuga-herrialdea, praktikak egingo diren enpresa edo erakundea, praktiken iraupena, egin beharreko zereginak eta praktika-egonaldia behar bezala garatu dadin adierazgarritzat jotzen den beste edozein gai. Praktika-egonaldia bekaren esleipena jakinarazi eta bi hilabeteko epean hasiko da.

5.– Bekaren esleipen-agiriaren berri emango zaie aukeratu diren hautagaiei. Deialdia egin duen erakunde bakoitzak prozesuan parte hartu dutenen zerrenda orokorra argitaratuko du, eta bertan adieraziko da aukeratuak izan diren edo ez.

6.– Aldaketak esleitutako bekaren baldintzetan.

a) Eman dioten beka gauzatzeko, funtsezkoa izango da bekadunak herrialde bakoitzak eskatutako bisatuak edo baimenak lortzea. Bisatu edo baimen horiek lortzea ezinezkoa dela ikusiz gero, erakunde arduradunak praktika beste herrialde batean egiteko aukera eskaini ahal izango dio bekadunari.

b) Bekaren arduraduna den erakunde, enpresa edo organismoari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik edo helmuga-herrialdeko segurtasunean aldaketa edo mehatxu larria egoteagatik beka garatzeko baldintzak arriskuan egonez gero, Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta/edo SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak beken arduradunak diren erakundeei agindu ahal diete kaltetutako pertsonen helmuga-herrialdea aldi baterako edo betirako aldatzea. Salbuespen gisa, bekadunari esleitutako herrialde berria Euskadin egon daiteke, telelana ere egiteko aukera egonda.

c) Ohiz kanpoko kasuetan, aurreko ataletan deskribatutako egoeretan dauden bekadunei beste helmuga-herrialde bat aurkitzeko aukerarik ez badago eta telelan modalitatearekin lanak egiteko aukerarik ez badago, beken arduradunak diren erakundeei, Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziarekin ados jarrita, beka bertan behera utzi dezakete amaierarako zehaztutako data baino lehen.

VII.– «Global Training» bekaren onuradunaren betebeharrak.

«Global Training» programako beka baten onuradunak honako betebeharrak hauek ditu:

a) Emandako beka onartzea. Ildo horretan, bekaren esleipenaren jakinarazpen-egunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko epean eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio bekari, behin betiko onartu duela ulertuko da.

b) Helmuga-herrialdean praktikak egiten hasi aurretik emango den prestakuntza-ikastarora joatea.

c) Praktikak eskaini dizkion enpresak edo erakundeak agindutako zereginak gauzatzea, betiere aldeztu aurretik itundutako lanerako planaren esparruan.

d) Beka ematen duen erakundeak praktiken garapenari buruz eskatzen dizkion txostenak egitea eta bidaltzea hiru hilean behin.

e) Helmuga-herrialdera iristean kontsulatuan edo enbaxadan erregistratzea, beka irauten duen bitartean bere bizitokia finka dezan.

f) Egindako lanari buruz beka ematen duen erakundeak ezartzen dituen ebaluazioetan parte hartzea. SPRIren sozietate filiala den Basque Trade & Investment-eko (Nazioartekotze Euskal Agentzia) ordezkari batek ebaluazio horietan parte hartu dezake.

g) Bekak dirauen bitartean ordaindutako beste jarduerarik ez egitea.

h) Bekari uko egiten bazaio edo VI. artikuluko c) atalean deskribatutako kasuan egonez gero, jasotako gehiegizko zenbatekoak itzultzea.

Itzuli behar den zenbatekoa kalkulatzeko, bekaren xede izan den praktikaren egonaldiak aurreikusitako iraupen-epearen eta praktika hori estaltzeko esleitutako diru-zuzkiduraren artean dagoen erlazio proportzionala zehaztuko da, eta jasotako

zenbatekoa emandako egonaldiari dagokiona baino handiagoa bada, jasotako gehiegizko kopurua itzuli beharko zaio beka eman duen erakundeari.

i) Beken erakunde arduradunek zehaztutako gidalerroei jarraituz, bizitokia ez dagoen herrialdeetara egindako bidaien berri eman beharko da, bidaiaren arrazoiak praktikarekin lotutakoak zein pertsonalak izanda ere, aseguru-poliza gaurkotu eta estaldura bermatu ahal izateko. Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotze Euskal Agentzia) eta/edo SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak herrialde edo eskualde bat arriskutsua dela egiaztatzen badu, bekadunen nazioarteko mugikortasuna mugatu ahal izango da.

j) Laguntzei emandako helburuaren fiskalizazio-funtzioak betetzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dioten informazio guztiak ematea.

k) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.

VIII.– Bekak ematen dituzten erakundeen betebeharrak bekadunei dagokienez.

«Global Training» beka-programan parte hartzen duten beka-emaileak arduratuko dira III. atalean azaltzen diren onurak erabat betetzeaz eta, horri jarraikiz, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Bekadunari prestakuntza ematea praktikak egiteko egonaldia hasi aurretik.

b) Atzerriko praktikak garatuko diren enpresekin edo erakundeekin lankidetzahitzarmen espezifikoak formalizatzea. Hitzarmen horietan, bekadunak praktika garatzeko beharrezkoak diren baldintza materialak eta teknikoak ezarriko dira, esate baterako, praktika egingo den lekua, iraupena, adostutako lanerako plana eta funtsezkotzat hartzen den gai oro.

c) Aseguru-poliza kontratatzea, gaixotasun- eta istripu-arriskuak ez ezik, aberriratzegastuak eta hirugarrenetik erantzukizun zibila ere estaliko dizkiona bekadunari.

d) Bekaren diru-zuzkidura ordaintzea honako ordainketa-araubide honen arabera:

1) Lehenengo ordainketa: emandako bekaren diru-zuzkiduraren % 50 praktikaren egonaldia hasi aurretik.

2) Bigarren ordainketa: bekaren diru-zuzkiduraren % 40 praktikaren egonaldiaren iraupenaren erdia betetzen den hilean.

3) Hirugarren eta azken ordainketa: geratzen den zenbatekoa, behin praktikak egiteko egonaldia bukatuta, betiere bekadunak eta beka jaso duen erakundeak edo enpresak aurkeztu beharreko azken balantzeari buruzko txostenak jaso ondoren.

IX.– Bekadun izaera galtzea eta dirua itzultzea

Bekadun izaera azkendu daiteke programa amaitzeagatik edo, bestela, honako arrazoiren batengatik:

a) Bekadunak uko egitea.

b) Beka bertan behera geratzea, VI. artikuluko c) atalean xedatutakoa betez gero.

c) Justifikaziorik gabe helmuga-herrialdera joan aurreko prestakuntza-ikastarora birritan edo gehiagotan ez joatea.

d) VI. artikulua arabera helmuga-herrialdean izandako aldaketak ez onartzea.

e) VII. artikuluko i) atalaren arabera mugikortasunean ezarritako mugak ez onartzea.

f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzea.

II. ERANSKINA

Aurretiko Prestakuntza-lkaskaroaren gutxieneko edukiak

– 40 eta 60 ordu bitarteko iraupena.

- Prestakuntza horrek honako gai hauek izango ditu, besteak beste, eta, ahal dela, derrigorrezko modalitate presentzian emango da, osasun-egoerak beste modu batez egitea gomendatu ezean.

1. NOLA EKIN ATZERRIKO PRAKTIKARI
2. KULTURARTEKO NEGOZIAZIOA
3. KOMUNIKAZIO-TEKNIKAK
4. TALDEAN LAN EGITEA
5. ADIMEN EMOZIONALA
6. BERRIKUNTZA
7. BESTE BATZUK, PRAKTIKA MOTAREN ARABERA



III ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2021

AURKIBIDEA

● ESKABIDE-ORRIA

- I.- ESKABIDEA
- II.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
- III.- ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA
- IV.- PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

2021eko apirilaren 19a, astelehena



III ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2021

I- ESKABIDEA

1. ESKATZAILEA:

Erakunde eskatzailea:	
Legezko ordezkaria:	
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>
Kargua:	
Izapidetzearen arduraduna:	
Kargua:	
Telefono-zenbakia:	
Helbide elektronikoa:	

2. GARAPEN PROIEKTUA:

Beka-kopurua	
--------------	--

Eskarmentua antzeko programen kudeaketan:

	Proiektuak barne hartutako jarduerak
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	



III ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2021

.....(e)n, 2021eko(a)ren(e)an

Sin. Legezko ordezkaria

2021eko apirilaren 19a, astelehena

**III ERANSKINA****GLOBAL TRAINING BEKAK - 2021****II.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Jauna/Andrea:
 Erakunde honen ordezkari gisa:

NAN:
 IFZ:

ADIERAZTEN DU:

Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zigor eta administrazioaren arloko zehapenik, eta ez dauka horretarako legezko inolako debekurik.

Erakundea ez dute administrazioan edo auzi-bidean zigortu sexua dela-eta inor baztertzearatik, eta ez du jaso deialdietan parte hartzeko edo laguntzak eskatzeko debekurik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoa betez.

Laguntza-eskabide hau aurkezteaz gain, adierazitako datara arte hurrengo erakunde publiko edo pribatuetan laguntza-eskabideak aurkeztu eta/edo laguntza jaso du honako proiektu hauetarako:

Eskaeraren data	Erakundea	Eskatutakoa	Ebazteke/Onartua/Ukatua	Laguntzaren zenbatekoa (€)

Horrez gain, egindako edozein laguntza-eskabideren berri emateko konpromisoa hartzen du, Programa honi eskatutako proiektuen kasuan, erakunde publiko edo pribatuetan eta ekitaldi honetan.

.....(e)n, 2021eko(a)ren(e)an

Sin. Legezko ordezkaria



III ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2021

III.- ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA

1. DESKRIBAPENA:

Izen osoa:	
Izen laburtua:	IFZ:
Eraketa-data:	
Helbidea:	
Posta-kodea:	Herria:
Lurralde historikoa:	
Telefonoa:	Faxa:
E-maila:	Web-orria:

2. PROIEKTUA GARATUKO DUTEN ERAKUNDEKO PERTSONAK (betetzea hautazkoa da):

Mahaiburutza:		
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izendapen-data:	
Gerentzia:		
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Karguaren izena:	
Proiektuko gainerako pertsonak:		
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:
Sexua: Gizona <input type="checkbox"/> / Emakumea <input type="checkbox"/>	Izena:	Kargua:

3. ERAKUNDEAK PROIEKTUA GARATZERA BIDERATUTAKO BALIABIDE MATERIALAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....



III ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2021

V - PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

OSATU:

VI ERANSKINA - ESKAINITAKO PRAKTIKEN LABURPEN-KOADROA.
VII ERANSKINA - ESKAINITAKO PRAKTIKA BAKOITZAREN XEHETASUNA.



IV ERANSKINA

AURKEZTUTAKO PROIEKTUA BALORATZEKO IRIZPIDEAK ETA HAZTAPEN-FAKTOREAK

Irizpidea	Haztapena
1-) Praktiken zehaztasuna: Enpresa edo erakundearen jarduera, sektore, jatorri eta tamainari buruzko informazioa, eskatutako bekadunaren profila, praktika egingo den helmuga geografikoari buruzko informazioa, bekadunak egingo dituen lanen deskribapena, etab.	Gehienez 15 puntu
Eskatutako informazio guztia argi eta zehatz jasotzen da	15
Informazioa falta da edo eskainitako informazioa zehaztugabea edo orokorra da	10
Informazioa ez da nahikoa edo egiazkoa	0
2-) Praktikak RIS3 enpresa eta erakundeetan \geq guztiaren % 25	10
3-) Praktikak atzerriko enpresa eta erakundeetan \geq guztiaren % 80	15
4-) Bekaren epearen luzapena (% 90ari eskaintzak)	Gehienez 30 puntu
Luzapena > 5 hilabete	30
4 hilabete \leq Luzapena < 5 hilabete	25
3 hilabete \leq Luzapena < 4 hilabete	20
Luzapena > 2 hilabete	15
Luzapenik gabe	0
5-) Aurkeztutako beka-kopurua: \geq 60 beka	10 puntu
6-) Erakundeen arteko lankidetzak, barneko lankidetzak-akordio baten bidez ziurtatuta	10
7-) Hautagaitzen ratio handiena duen erakundea, aurreko deialdian emandakoekin alderatuta	5
8-) Aurreko deialdian eman eta esleituak izandako beken zenbatekoa	5
Guztira	100

2021eko apirilaren 19a, astelehena



V ERANSKINA
“GLOBAL TRAINING 2021” PROGRAMAREN BEKAK
BEKAREN LUZAPEN GEHIGARRIARI BURUZKO AURREAKORDIOA

_____ jaunak/andreak, _____ IZK duen eta
_____ -(e)n dagoen _____ enpresaren/erakundearen
ordezkari moduan, adierazten du _____ enpresak/erakundeak 2021eko Global
Training programako bekadunaren egonaldia luzatzeko konpromisoa hartzen duela, honako epe honetan:

- 2 hilabete
- 3 hilabete
- 4 hilabete
- beste epe bat

enpresan/erakundearen, 6 hilabeteko beka batek hasiera batean estalitako epea normaltasunez eta egoki betez gero. Denbora gehigarri horretan, aseguruaren kostua bekaren luzapenez arduratuko den enpresak/erakundeak ordainduko du. Horrez gain, enpresak/erakundeak aukeratu ahal izango du bekadunari hilean ordainduko dion diru-kopurua, kontuan hartuta kopuru hori mantenu- eta ostatu-gastuetarako erabiliko dela.

- Bekaren diru-zuzkidura bera
- Beste kopuru bat _____

2021eko apirilaren 19a, astelehena



ENPRESA/ERAKUNDEA	SINADURA	DATA
ARDURADUNA:		

2021eko apirilaren 19a, astelehena



**“GLOBAL TRAINING 2021” INTERNSHIP PROGRAM
PRELIMINARY AGREEMENT CONCERNING INTERNSHIP EXTENT**

_____ representing _____ company/organization, with Tax Identification Number _____ and located in _____, declares that the company/organization agrees to extend the internship period corresponding to the Global Training 2021 trainee’s program for the time indicated below:

- 2 months
- 3 months
- 4 months
- another period

at the company/organization, provided that a satisfactory development of the internship during the initial 6 months period has been given. For this extend period, insurance cost will be paid by the company/organization. Likewise, the company/organization can choose the economic endowment that will pay to the trainee, taking into consideration that it will be used for accommodation and maintenance.

- Same economic endowment
- Other amount _____

2021eko apirilaren 19a, astelehena



COMPANY/ORGANIZATION	SIGNATURE	DATA
REPRESENTATIVE:		



VII ERANSKINA - PARTE HARTZEKO ESKABIDEA: GLOBAL TRAINING PROGRAMA – PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA

PRAKTIKAREN ERREFERENTZIA: (Sartu VI Eranskinean praktika identifikatzen duen kode edo zenbaki bera)

INFORMAZIO KORPORATIBOA	
Enpresaren/erakundearen izena	
Harremanetarako pertsona	
Kokapena	Herraldea
	Hiria
	Helbidea
Sektorea	

PROPOSATUTAKO PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Hartuko den bekadun-kopurua	
Egonaldiaren luzapena (hilabete gehigarriak eta hileroko diru-zuzkidura)	Hilabete gehigarriak
	Hilabete gehigarrietan bekadunak hilean izango duen diru-zuzkidura (€)

PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Departamentua	

2021eko apirilaren 19a, astelehena

(Bekadun bat baino gehiago eskatuz gero, adierazi bakoitzak zer departamentutan lan egingo lukeen)	
Proiektu/jardueraren deskribapena (Bekadun bat baino gehiago eskatuz gero, adierazi bakoitzak zer proiektutan/jardueratan lan egingo lukeen)	

POSTURAKO ESKATUTAKO GAITASUNAK	
Nahi diren profilei buruzko informazioa (Ikasketak, aurretiko eskarmentua, hizkuntza, beste trebetasun batzuk...)	
Iruzkinak	

2021eko apirilaren 19a, astelehena

**ANNEX VII- APPLICATION FORM: GLOBAL TRAINING PROGRAMME – INTERNSHIP INFORMATION**

INTERNSHIP REFERENCE: *(Introducir mismo código o numeración que identifique la práctica en el Anexo VI)*

CORPORATIVE INFORMATION	
Name of the company/organization	
Contact person	
Location	Country
	City
	Address
Contact person	
Sektorea	

PROPOSED INTERNSHIP INFORMATION	
Number of trainees to host	
Extension time	Extra months
	Trainee's salary for extra months

INTERNSHIP/PLACEMENT INFORMATION	
Department / Area where the intern will be working (In case you want more than 1 trainee, indicate the different departments where they will work)	
Description of project/activities (In case you want more than 1 trainee, indicate the different project/activities on which they will work)	

COMPETENCES, SKILLS and EXPERIENCE REQUIREMENTS	
Requested profile(s) information (Studies, previous experience, language skills, other skills...)	
Other commentaries	